

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bittori Igartua Igartua

*Oñati,
Gipuzkoa
(1919-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Uribarri auzoko Sagastizabal baserrian jaio zen, bederatzi anai-arrebatatik laugarrena. Aita etxekoa zen eta ama, berriz, Larraña auzoko Elordui baserritik etorritakoa. Auzoko eskolan ikasi zuen, lau urterekin hasi eta hamar izan zituen arte. Gasteizera bidali zuten neskame hamar urterekin. Hiru urte bertan egin ondoren, Legazpiko Makatzaga baserrian jardun zuen neskame beste urtebete. Gero beste hiru urtez Oñatiko Ginea palazioan aritu zen. Aldi batez etxean egon eta gero, frantsesa ikastera joan zen Bordele ondoko Langon herrira. Handik Parisera joan zen judu familia baten neskame. Parisen estetizista ikasi zuen. Ahizpa gazteena ile-apaintzailea zuen eta harekin batera ile-apaindegi eta estetika jarri zuen Kale Berrian; mota hartako lehena izan zena Oñatin. Bertatik hartu zuen erretiroa. Bidaiatzea eta irakurtzea maite ditu. Berari elkarrizketa bat egin zitzaion, eta "[Mahai-ingurua Oñatin 1](#)" grabazioan ere parte hartu zuen.

Zintak

ONA-143

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-08-31
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

ONA-144

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-08-31
- **Iraupena:** 14 min

- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Uribarriko eskolan, Felipe Jausoro maisuarekin

- **Erref:** ONA-143/002
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:01:06. **Bukatu:** 00:02:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Sagastizabal baserrikoa da. Uribarrin ibili zen eskolan, hamar urtera arte. Felipe Jausoro zen maisua; ez zen apaiza, ezkontuta zegoen. Uribarriko maisu-etxea. Lau urterekin hasi zen eskolan. Euskaraz eta erdaraz ikasten zuten. Euskara maite zuen maisuak. Preso egon zen gerra denboran.

2. Uribarriko eskola eta umetako jolasak

- **Erref:** ONA-143/004
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak, eskolatik irtenda. Txirikiletan, zapakonak, harrapaketan, banku bankuka, zankarrankan... Eskolan zenbat ziren: 40 bat neska-mutil, adin askotakoak. Zein baserritako umeak ziren.

3. Sagastizabal baserriko bizimodua

- **Erref:** ONA-143/006
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:06:26. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Egunero joaten zen eskolara. Itaurrean gerora ibili zen gehiago. Bederatzi senide ziren, bera laugarrena. Ama Larrañako Elordui baserrikoa zen. Lau-bost behi zituzten, idirik ez. Ardirik ere ez. Sagastizabal baserriaren kokapena.

4. Lehengo sukaldea eta otorduak

- **Erref:** ONA-143/008

- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxean ez zuten urik, baina oso gertu iturria bai. Argindarra beti izan zuten. Beheko sua. Tximinia, horma ondoan. Lapiko handiak. Denak batetik jaten zuten umea zela. Katilua altzoan jarrita. Orduko jatorduek: salda eta esnea goizean, eta eguerdian beti babarruna; domeketan garbantzua. Urdaia, txorizoa. Afaria: gaztainak, neguan, eta esnea edo salda. Tremes zopak. Garia eta artoa.

5. Lihoa ezagutu du

- **Erref:** ONA-143/010
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:13:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lihoa ezagutu du soroan, baina ez da asko akordatzen. Amak haria egiten zuen liñuarekin eta amandreak ere bai. Haria egitea. Liña-putzurik ez zuten, etxean ereiten ere ez du ezagutu.

6. Gasteizera neskame, hamar urterekin

- **Erref:** ONA-143/011
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:13:38. **Bukatu:** 00:17:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Eskola amaitu ostean, hamar urterekin Gasteizera bidali zuten. Azkarragako Bitoriano apaizgaiak esanda, Amezketako anai-arreba batzuegana neskame. Baldintza bat jarrita, arratsaldean eskolara joatea. Baina eskolan arratsaldean laboreak egiten zituzten, josi, eta ez zuen besterik ikasi. Josten ere bazekin aurretik, amak erakutsita. Diputazioko plazan egon zen. Ama nola hil zen, erditzean.

7. Tripatruke Gasteizen, erdara ikasteko

- **Erref:** ONA-143/013
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:17:41. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Tripa truke egon zen neskame, ez zioten ordaintzen. Zapatak erosten zizkieten noizean behin. Nahiko oroitzapen ona du. Eskolan zeudela, inspektore bat joan zen; "historia sagrada" galdetu zion, eta ondo erantzun zuen. Erdaraz. Felipe maisuari eskerrak, erdaraz eta euskaraz, bietara moldatzen zen.</p>

8. Gasteizen ahizpa eta biak, txandaka

- **Erref:** ONA-143/015
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:20:13. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

12 urterekin etxera bueltatu zen, eta ahizpa nagusia joan zen Gasteizera, erdara ikastera. Gero berriro joan zen, eta beste urtebete egin zuen. Enkarguak eta etxeko lanak egiten zituen.

9. Legazpin neskame; esnea partitzen

- **Erref:** ONA-143/017
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:26:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame bidali zuten Legazpíko Makatzaga baserrira. Hiru urte han. Egunero esnea saltzen zuen, behiak jetzita. Auzoko beste esnedunekin asto lasterketak. Esne partíketa. Gerra hasi zen. Esne hartzaileak: kontzejua... Neurriak. Bueltan enkarguekin etxera.

10. Legazpin zegoela, gerra hasi zen; Txomin lagunari gertatutakoa

- **Erref:** ONA-143/018
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Legazpin neskame zegoela hasi zen gerra. Ahizpa zaharragoa urtebetean egon zen han. Ama hil zen, eta amandrea ere bai. Gerra hasi zenean, bazekiten zerbait. Nafarroatik ihes eginda zeuden batzuk. Ondoko baserriko mutilari gertatu zitzaiona (Makatzaga Etxebarriko Txomin): Bizkaira joan eta preso hartu zuten. Trenean zeramatela, istripua izan eta hil egin zen.

11. Aztiriako eliza eta erromeriak

- **Erref:** ONA-143/019
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Makatzaga Legazpikoa zen, baina Aztiriara joaten ziren mezetara, baita erromeriara ere. Erromeriak nolakoak ziren, soinu-jotzailea. 16 urte zituen. Apaizak ez zuen dantza lotua debekatzen. Goiko Benta.</p>

12. Udanan fusilatuak; Txomin lagunari gertatua

- **Erref:** ONA-143/021
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:32:31. **Bukatu:** 00:36:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Legazpin egon zen gerra garaian. Udanako borroka. Uribarriko mutilak fusilatu ere egin zituzten: Urtzelaikoa eta Otadui-Etxebarrikoa. Aireplanorik ez du gogoan, ezta baserrietan militarrik egon zenik ere. Makatzaga-Etxebarriko mutilaren (Txomin) kontuak aipatzen ditu, lehen baino zehaztasun gehiagorekin, ihesi joan eta gero nola hil zen. Lagun berezia zen.

13. Makatzagako bizimodua

- **Erref:** ONA-143/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:36:08. **Bukatu:** 00:37:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian, ez zuten aldaketarik igarri Legazpin. Bere etxetik inor ez zen joan gerrara, gaztetxoak zirelako. Makatzagan zeintzuk bizi ziren. Esnea saltzen zuten eta ardiak zituzten. Berak egiten zituen lanak.

14. Legazpitik Oñatira: Guineanean neskame

- **Erref:** ONA-143/025
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:38:03. **Bukatu:** 00:41:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Legazpitik Oñatira: Gineanean egon zen neskame. Etxea non zegoen. Hiru urte egin zituen han, gustura. Liburuak zeuden han, eta komunean sartuta irakurtzen zituen. Salvador Guinearen emaztea oñatiarra zen. Hiru seme eta lau alaba zituzten.

15. Neskametzako lanak, Gineanean

- **Erref:** ONA-143/027
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:42:39. **Bukatu:** 00:45:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Gineanean zein lan egiten zituen. Hiru neskame ziren, sukaldaria eta bi dontzeila. Etxeko garbitasunak egiten zituen, eta liburuak irakurri. Txaleta zen, dotorea. Garaineko semeek hango alabekin zuten harremana. Soldata jasotzen zuen orduan, eta lehenago ere bai, Legazpin: 150 bat duro, urtean. Aitak kobratzen zuen.

16. Gineanean uniformearekin; dirua, etxean entregatu

- **Erref:** ONA-143/029
- **Iraupena:** 0:05:52. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:52:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Gineanean, uniformearekin egiten zuten lana. Bik zerbitzatzzen zuten mahaia, eta asko ikasi zuen. Gerra ostea. Karlistak ziren. Hiru seme ingeniari zituzten; propina ematen zieten, bost duro. Etxean entregatzen zuen hori ere. Etxerako dirua lortzeko izan zituen komeriak, dirua tela erosten gastatu zuen batean.

17. Oñatiko dendak

- **Erref:** ONA-143/031
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:53:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Oñatiko dendak: Santosena tela denda, Lukasena dendaren ondoan. Juanitosiena. Ritana.

18. Plazan musika banda igandero

- **Erref:** ONA-143/033
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:53:45. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Gineanetik kalera joaten ziren eroatera eta mezetara. Plazan bandak jotzen zuen igandetean. 20:30ean bueltan egon behar zuten. Uribarrin ere egoten zen erromeria: Urteagainen, Txopekuan... Filarmonika. Dantzazalea zen. Eduardo Aspiazurekin egiten zuen dantza.

19. Plazan musika banda igandero II

- **Erref:** ONA-143/035
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:57:05. **Bukatu:** 00:57:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aurreko pasartearen jarraipena. Maiztegineko Maria Luisarekin txotisak egiten zituen dantza Eduardo Aspiazuk, eta berarekin pasodobleak. Artean ez zegoen ezkondata.

20. Anai-arreben ezkontzak eta aldaketak

- **Erref:** ONA-143/039
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:00:16. **Bukatu:** 01:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Ahizpa ezkontzean bera etxera bueltatu zen. Anaia ezkondu arte egon zen han. Ugaztegiko Jazinta ezkondu zen baserrira. Arabako Zuazo hotelera joan zen, bainuetxera lanera hilabete ingururako. Oheak egiten eta mahaiaik zerbitzatzen.

21. Frantziara, frantsesa ikastera

- **Erref:** ONA-143/041
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:03:03. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Frantziara joan zen, frantsesa ikastera, gero Donostian jatetxeren batean lana egiteko asmoarekin. Bordele ondoan egon zen eta gero Parisen, neskame, senar-emazte judutar batzuekin. De Gaulle.

22. Paristik bueltan, ile apaindegia jarri zuten

- **Erref:** ONA-143/043
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 01:06:18. **Bukatu:** 01:10:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Paristik bueltan, ile apaindegia jarri zuen ahizpa gazteenarekin, Sabinarekin, Oñatin. Hura ile apaintzaile eta bera aurpegiko tratamenduak egiten eta depilatzen. Madrilen ikastaroak egin zituzten, aurretik. Pasadizoa: Madrilen Fernando Rey artistaren emaztea izan zuen bezero moduan. Parisen ikasi zuen gehiena.</p>

23. Ile apaindegia Kale Barrian

- **Erref:** ONA-143/045
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:10:32. **Bukatu:** 01:12:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Madrilen zortzi-hamar hilabete egin zituzten, eskola onenetan ikasten, Oñatin ile apaindegia jartzeko. Kale Barrian jarri zuten. Sabina erretiratu arte egon zen.</p>

24. Oñatiko ile apaindegiak

- **Erref:** ONA-143/048
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:14:19. **Bukatu:** 01:16:08

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Oñatiko ile apaindegiak. Tere eta Juli ile apaintzaileak. Kale Zaharrean Olaldeko ahizpak (Maritxu eta Martina Ugarte). Abenidakoa kanpoko zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com